

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN ESKUBIDEEN GIDA



MINISTERIO
DE IGUALDAD

SECRETARÍA DE ESTADO
DE IGUALDAD
Y CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO

DELEGACIÓN DEL GOBIERNO
CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO



GENERO INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZAK EGINDA

2021eko abenduan eguneratua

Kodea online: 048-21-172-1

1. GENERO INDARKERIA JASATEN DUTEN BIKTIMEN BERARIAZKO ESKUBIDEAK	5
1.1. Nor da genero indarkeriaren biktima?	6
1.2. Nola egiaztatzen da genero indarkeriaren egoera?	6
1.3. Informazioa jasotzeko eskubidea	7
1.3.1. Informazio eta aholkularitza juridikorako 016 zerbitzua	7
1.3.2. Genero indarkeriako kasuetarako prebentzio eta laguntza baliabideetarako webgunea	7
1.4. Gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubidea	8
1.5. Berehalako laguntza juridikorako eta berezirako eskubidea	8
1.6. Lan eskubideak	9
1.6.1. Besteren konturako langileen eskubideak	9
1.6.2. Ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen eskubideak	10
1.7. Gizarte Segurantzako eskubideak	10
1.7.1. Gizarte Segurantzako kotizaziorako eskubideak	10
1.7.2. Gizarte Segurantzako prestazioei buruzko eskubideak	11
1.8. Lan-eskubideak eta lan munduan txertatzeko eskubideak	12
1.8.1. Enplegu programa zehatza	12
1.8.2. Genero indarkeriaren biktimen kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua	13
1.8.3. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresentzako pizgarriak	13
1.9. Funtzionario publikoen eskubideak	13
1.10. Eskubide ekonomikoak	14
1.10.1. Genero indarkeria jasaten duten eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako berariazko laguntza ekonomikoa	14
1.10.2. Gizarteratzeko errenta aktiboa	14
1.10.3. Elikadura pentsioak ez ordaintzeagatik aurrerakinak	15
1.10.4. Bizitzeko Gutxieneko Errenta	15
1.10.5. Babestutako etxebizitza zein zahar egoitza publikoetan plaza bat eskuratzeko lehentasuna	16
1.11. Berehala eskolatzeko eskubidea	16
1.12. Bekak eta diru-laguntzak	16
1.13. Segurtasun arazoan ondoriozko erroldatze-berezitasunak	17
2. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUME ATZERRITARREN ESKUBIDEAK	18
2.1. Genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek Espainian bizilekua izateko egoera	19
2.1.1. Europar Batasuneko estatu kideetako hiritarren familia-izaera duten edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatu bateko hiritarren familia-izaera duten emakume atzerritarrak	19
2.1.2. Erkidegokoa ez den emakume atzerritarra: genero indarkeriagatik bizileku eta lan baimenerako dauden bi motatako baten titularra izan daiteke	19
2.1.3. Behin-behineko bizileku baimena eta inorentzat lan egiteko baimena daukan emakume atzerritarrari, baimen hau epe agortzeagatik berrituko zaio baldin eta, genero indarkeriaren biktima izateagatik, lan kontratua azkentzen den edo lan-harremanaren amaiera gauzatzen den	20
2.2. Genero indarkeriaren biktima diren eta egoera irregularrean dauden emakume atzerritarren babespena	20
2.3. Nazioarteko babesa jasotzeko eskubidea	21
3. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ESPAINIAKO EMAKUMEEN ESKUBIDEAK LURRALDE NAZIONALETIK KANPO	22

4. DELITUAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK ZEINTZUEN JABE DIREN HALABER, GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK	23
4.1. Delituaren biktimaren estatutuaren eskubideak	24
4.2. Salaketa jartzeko eskubidea	24
4.3. Babes agindu bat eskatzeko eskubidea	25
4.4. Babes agindu europar bat eskatzeko eskubidea	26
4.5. Jardunbide penalean alderdi izateko eskubidea: akzioak eskaintzea	26
4.6. Gauza itzultzeko, kaltea konpontzeko eta sortutako kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea	26
4.7. Jarduera judizialei buruz informazioa jasotzeko eskubidea	27
4.8. Genero indarkeriarekin lotutako jardunbideen esparruan biktimaren duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea	27
4.9. Genero indarkeriatzat jotako delituen biktimentzat laguntzak	28

GENERO INDARKERIA JASATEN DUTEN BIKTIMEN BERARIAZKO ESKUBIDEAK **1**

1 /2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa (BOE zk:313, 2004ko abenduaren 29koa), genero indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumeei zenbait eskubide ematen eta bermatzen dizkie, horien bidez gai izan daitezen indarkeriazko harremana bukatzeko eta beren bizi proiektua berreskuratzeko.

Eskubide hauek unibertsalak dira, hots, genero indarkeriazko ekintzaren bat jasaten duten edo jasan duten emakume guztiei dagozkie, dena delarik ere beren jatorria, erlijioa nahiz beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial.

1.1. Nor da genero indarkeriaren biktima?

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 1. artikulua

1/2004 Lege Organikoaren arabera, genero indarkeriaren biktima dira beren ezkontideen eskutik edota beraiekin antzeko afektibitate harremanak dituzten edo izan dituzten pertsonen eskutik (elkarbizitzarekin edo gabe), indarkeria jasaten duten emakumeak, indarkeria honek indarkeria fisiko edo psikologiko mota oro hartzen duelarik barne –sexuakatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, bortxak edota askatasunaren ukatze arbitrarioa barne-.

Emakumeen aurkako indarkeria modu hori giza eskubideen urraketa bat da eta gizonak emakumeen gain darabiltzaten botere harremanen, desberdintasun egoeraren eta diskriminazioaren adierazpena da.

Gainera, adin txikiko beren seme alabak eta tutoretza edo zaintza behar dutenak, indarkeria horren biktima dira eta 1/2004 Lege Organikoa eskubide ugari aitortzen dizkie, 5, 7, 14, 19.5, 61.2, 63, 65, 66 artikuluetan eta 17. xedapen gehigarrian.

Genero indarkeriak barne hartzen du (ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren aldaketaren arabera, indarkeriaren aurkako haurtzaro eta nerabezaroaren babes-integralari buruzkoa) ezkontideen eskutik edota beraiekin antzeko afektibitate harremanak dituzten edo izan dituzten pertsonen eskutik gizon batek emakume baten adin txikiko ahaide edo senideei egiten dien indarkeria, emakumeari kalte egiteko helburuarekin egiten dena (elkarbizitzarekin edo gabe).

1.2. Nola egiaztatzen da genero indarkeriaren egoera?

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 23, 26 eta 27.3. artikulua

Orokorrean, genero indarkeriaren egoerak ematen dituen eskubideen aitortzea ondorengo baldintzetan egiaztatzen da: genero indarkeriako delitu batengatik epai-kondenatzailea, biktimaren aldeko babes agindu bat edo kautelazko neurri bat adosten duen edozein epai edo Fiskaltzaren txostena, non demandatzailea genero indarkeriaren biktima izan daitekeenaren zantzuak azaltzen diren.

Genero indarkeriaren egoera beste hauen txosten baten bidez ere ziurta daiteke gizarte zerbitzuak, zerbitzu espezializatuak edo eskumena duen Administrazio publikoaren genero indarkeriako biktimei zuzendutako harrera-zerbitzuak; edota beste edozein tituluren bidez, baldin eta eskubide eta helegite bakoitza arautzen duten sektore izaerako xedapen arauemaitan hala zehazten bada.

1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluari jarraikiz, genero indarkeriako egoera ziurtatzeko, 2019ko apirilaren 3an egin zen Berdintasunaren Sektoreko Konferentzian gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuaren edo genero indarkeriaren biktimei harrera egiteko zerbitzuen zerrenda bat onartu zen, eta baita indarkeriaren biktima baldintza ziurtatzeko ahalmena duten genero indarkeriaren biktimei zuzendutako harrera zerbitzuak ere, administrazio autonomikoek, modu homogeneoan, genero indarkeriaren biktima baldintza administrazioan ziurtatzeko. 2021eko azaroaren 11ko Berdintasunaren Sektoreko Konferentzian, Akordio bat hartu zen, zeinaren bitartez genero indarkeria egoerak ziurtatzeko sistemak abian jartzeko oinarriko prozedurak onartzen ziren, eta Autonomia Erkidego bakoitzean izaera administratiboko akreditazioak igortzen dituzten erakundeak eta txostenaren erdua eguneratu ziren. Akreditazio horri esker, genero indarkeriaren biktimek 1/2004 Lege Organikoaren “Lan eskubideak eta Gizarte Segurantzaren prestazioak” II atalean araututako eskubideak atzitzea ahalbidetzen da, eta baita aplikatu beharreko Estatuko araudian onartutako zuzenbide, baliabide eta zerbitzu guztiak ere, haietako bakoitzean sartzea arautzen duten sektoreko araudiko xedapenak hartzen dituzten, eskatzen diren baldintzen artean, gizarte zerbitzuen txosten bidez genero indarkeria ziurtatzea, edo dagokion Administrazio Publikoan genero indarkeriaren biktimei zuzendutako harrera zerbitzuena barne.

Akreditazio horri buruzko informazioa Genero Indarkeriaren Aurkako Gobernu Ordezkaritzaren webgunean ageri da: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/acreditacion/home.htm>

1.3. Informazioa jasotzeko eskubidea

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 18. artikulua

Informazioa jasotzeko eskubidea bermaturik dago ondorengo zerbitzuen bidez:

1.3.1. Informazio eta aholkularitza juridikorako 016 zerbitzua

- Istanbuleko Hitzarmenean barne hartu ziren emakumeen kontrako indarkeria forma guztiak jasaten dituztenei informazioa, aholkularitza juridikoa eta berehalako arreta psikosoziala eskaintzen diete, dohainik eta era konfidentzalean. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko genero indarkeria ere kontuan hartzen du.
- Zerbitzua eskuragarri dago hiru kanal hauetan:
 - Telefono zenbaki labur honetan: **016**.
 - Helbide elektronikoz: **016-online@igualdad.gob.es**.
 - **WhatsApp**-en bidez: **600 000 016** zenbakiaren bidez, deiak onartzen ez dituen zenbakia baita.
- Informazioa eta berehalako arreta psikosoziala egunean 24 orduz daude eskuragarri, urteko 365 egunetan. Aholkularitza juridikoa astelehenetik igandera, goizeko 8etatik gaueko 10etara arte dago eskuragarri.
- Entzumen- eta/edo hizkera-desgaitasuna duten pertsonak hainbat bide erabil ditzakete: 900 116 016 telefono-zenbakiaren bidez; Telesor zerbitzua Telesorren web-orriaren bidez (kasu horretan, Internetarako konexioa behar da: <https://www.telesor.es>); telefono mugikor baten edo PDA baten bidez, doako aplikazio bat instalatuta; SVIusual bideo-interpretazioko zerbitzua, <http://www.svisual.org> orrialdearen bidez, WhatsApp-aren bidez: 600 000 016; helbide elektronikoa: 016-online@igualdad.gob.es
- Irisgarria da atzerritarrentzat ere, gaztelaniaz eta hizkuntza koofizialez gain honako hizkuntza hauetan:
 - Telefono bidez, asteko 7 egunetan 24 orduz, 53 hizkuntzatan: gaztelania, kalatana, galegoa, euskara, valentziera, ingelesa, frantsesa, alemana, portugesa, mandarin-txinera, errusiera, arabiera, errumaniera, bulgariera, afganiera, albaniera, armeniera, banbara, berebera, bosniera, portugesa (Brasilekoa), kantonesa, txekiera, koreera, daniera, esloveniera, eslovakiera, farsi, finlandiera, georgiera, grekoa, hindi, nederlandera, hungariera, italiera, japoniera, lituaniera, mandinka, norvegiera, persiera, poloniera, poulaar, serbokroaziera, siriera, soninke, suediera, thailandiera, taiwanesa, tamazight, turkiera, ukrainera, urdu, wolof.
 - Helbide elektronikoa eta WhatsApp-a, asteko 7 egunetan 24 orduz: gaztelania, katalana, euskara, galegoa, valentziera, ingelesa, frantsesa, alemana, portugesa, txinera, mandarin-txinera, errusiera, arabiera, errumaniera, bulgariera, italiera.
- Deiak ondorengo kasuetan desbideratuko dira:
 - Larrialdi egoera batekin erlazionaturiko dei bat denean, 112 telefonora bideratuko da.
 - Emakumeen berdintasunari buruzko informazio orokorra eskatzeko deiak Emakumeen Institutura bideratuko dira.
 - Autonomia Erkidego baten informazio zehatz batekin erlazionaturiko dei bat denean, dagokion autonomia-erki-degoko telefonora bideratuko da.
 - Adingabeok egindako deiak ANAR Telefonora (Haur eta Nerabeen Laguntza) bideratuak izango dira.

1.3.2. Genero indarkeriako kasuetarako prebentzio eta laguntza baliabideetarako webgunea

Berdintasun Ministerioaren webgunean dago eskuragarri, Genero Indarkeriaren kontrako Gobernu Ordezkaritzaren Sailean: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/recursos/home.htm>.

Administrazio publikoak eta gizarte erakundeek hiritarren eta genero indarkeriaren biktimen esku jarri dituzten baliabide desberdinen (polizia, epaitegiak, informazioa, arreta, aholkularitza eta abar) mapa aktiboen kokalekua onartzen du.

1.4. Gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubidea

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 19. artikulua Kode Zibilaren 156. artikulua, ekainaren 2ko 8/2021 Legearen idazketan, eta horren bidez aldatu egiten da desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala

Zerbitzu horiek arretarako, larrialdietarako eta babeserako eta harrerarako eta guztiz errekuiperatzeko gizarte zerbitzuak dituzte, eta etengabeko arretaren printzipioei, berehalako jardunari, prestazioen espezializazioari eta diziplina profesional anitzi erantzun behar diote. Zerbitzu hauen helburua indarkeriazko egoeraren ondorioz sorturiko premiak asetzea da, eta biktimak indarkeria jasan aurretik bizi zuen egoera berreskuratzea edo, behinik behin, kalteen ondorioak arintzea.

Zerbitzu hauei esker emakumeek honakoa lor dezakete:

- Abiaraz ditzaketen jardunbideen eta beren eskubideen inguruan aholkularitza jasotzea.
- Laguntza material, mediko, psikologiko eta soziala eskatzeko zein zerbitzutara jo dezaketen jakitea.
- Beren segurtasuna bermatu eta beren oinarritzko beharrak ase ditzaketen ostatu-baliabide desberdinak erabiltzea (larrialdietarako laguntza, aldi baterako harrera, babes etxeak eta abar).
- Beren osasun fisiko eta/edo psikologikoa berreskuratzea.
- Beren burua prestatzea, gizarteratzea edo lan-munduratzeta, eta berreskuratze integralaren ibilbide osoan zehar sostengu psiko-soziala jasotzea biktimizazio bikoitza saihesteko xedez.

Gizarte laguntza integralerako eskubidea, genero indarkeria pairatzen duten familietan bizi diren adingabeei ere aitortzen zaie. Gizarte zerbitzuek nahikoa leku izan behar dute genero indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabak hartzeko, eta hauei arreta egokia eskaintzeko prestakuntza berezia duten langileak izan behar dituzte, adingabe horiei kalte psikiko eta fisikoak eragin diezazkieketen egoerak eraginkortasunez prebenitu eta saihesteko helburuz.

Seme alaba adingabeen arreta eta laguntza psikologikoa emateko, zigor epai bat eman denean eta zigor erantzukizunik deusezten ez denean edo gurasoetako bat aurkako zigor prozedura bati ekin zaionean komunean dituzten seme alabetako baten bizitzaren, integritate fisikoaren, askatasunaren, integritate moralaren edo sexu askatasunaren edo ukigabetasunaren aurka egin duelako edo beste gurasoari eraso egin diolako, nahikoa izango da azken horren onespina adin txikiko seme-alabei laguntza psikologikoa eskaintzeko, nahiz eta lehenari behar den moduan jakinarazi beharko zaion. Hau berdin aplikatuko da, nahiz eta aurretiazko salaketarik ez egon, emakumea genero indarkerian espezializatutako zerbitzu baten asistentzia jasotzen ari bada, betiere zerbitzu horrek egoera hori baieztatzen duen txosten bat igortzen badu. Laguntza hamasei urte baino gehiagoko seme alabei eman behar bazaie, horien berariazko onespina beharko da.

Autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei eta tokiko korporazioei dagokie eskubide hori indarrean sartzeko zerbitzuak ematea.

Xede horietarako, genero indarkeriaren emakume biktimen eta euren seme alaben harrera zentroen sareak koordinatzeko autonomia erkidegoen arteko deribazio protokoloak (2014) genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eta euren seme alaben mugikortasuna errazten du, autonomia erkidego desberdinetako harrera zentroetara joan daitezkeelako, bai emakumearen edo zaintzapean dituen adingabeen segurtasunerako, bai berreskuratze sozialaren mesederako.

1.5. Berehalako laguntza juridikorako eta berezirako eskubidea

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 20. artikulua 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa 141/2021 Errege Dekretua, uztailak 25ekoa, bere bidez Doako Laguntza Juridikoaren Araudia onartzen da

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek eskubidea dute doako laguntza juridikoa jasotzeko, auzitan ibiltzeko helegitertik badagoen aintzat hartu gabe. Berehala jaso ahalko dute laguntza hori, prozesu judizial eta administratiboek pairatutako indarkerian kausa zuzena edo zeharkakoa badute.

Eskubide horrek kausadunei ere lagunduko die biktima hilez gero, baldin eta gertaeretan parte hartu ez badute.

Doako justiziaren onura emateko, salaketa jartzen denean edo auzitara eramatean lortuko da biktima baldintza, edo zigor prozedura hasten denean, eta zigor prozedura indarrean den arte edo, amaitu ostean, zigor epaia eman denean mantenduko da izendapen hori. Doako justiziaren onura galdu egingo da absolutzio-epaia irmoa denean edo zigor prozedura era irmoan artxibatzen denean, eta ez da ordura arte doan emandako prestaziorik ordaindu beharko.

Genero biktima izendatzearen ondorioz has daitezkeen prozesuetan, abokatuak berak lagunduko dio biktimari, baldin eta bere defentsa- eskubidea behar bezala bermatzen bada.

Biktimari izendatutako abokatuak prozesuan ordezkatzeko lege gaitasuna ere izango du prokuradorea izendatzen arte, biktima akusazio gisa aurkeztu ala ez. Ordura arte abokatuak beteko du jakinarazpenak eta dokumentuak bidaltzeko helbidea erakusteko betebeharra.

Genero indarkeriako biktimak prozeduraren edozein unetan aurkeztu ahal izango dira akusazio partikular gisa, aurkeztu baino lehen gauzatutako ekintzetan atzera egitea edo horiek errepikatzea eragiten ez badu, eta akusatuaren defentsa-eskubidea murrizten ez badu.

Dagozkien Abokatu Elkargoek guardiako txanda bat izango dute une oro, genero indarkeriaren biktimei alde aurretik aholkularitza eta laguntza letraduna emateko.

Doako laguntza juridikorako eskubidea zerbitzu hauez osatuta dago, besteak beste:

- Prozesuaren aurreko doako aholkularitza eta orientazioa eta, batez ere, salaketa jarri aurreko une horretakoa.
- Abokatuaren eta prokuradoaren doako defentsa eta ordezkartza administrazio prozesu eta prozedura guztietan.
- Prozesuan zehar, iragarkiak edo legezko abisuak doan jartzea aldizkari ofizialetan.
- Tasa judizialak ordaintzetik salbuestea, baita helegiteak jartzeko ordaindu beharreko gordailuetatik ere.
- Doako peritu laguntza prozesuan organo jurisdikzionaletara atxikitako langile teknikoen kontura egingo da edo, halakorik ez balego, Administrazio publikoen mendeko funtzionarioen, erakundeen edo zerbitzu teknikoen kontura.
- Notario-dokumentuen muga-zergen eskubideak doan lortzea edo % 80ko murrizketarekin.

1.6. Lan eskubideak

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 21. artikulua

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaizkien eskubideen aitortpenak helburu bezala dauka hauek, jasaten duten indarkeria dela eta, lan merkatua ez uztea. Horretarako, eskubide batzuk aitortzen zaizkie, lana eta genero indarkeriaren biktima egoeraren adiskidetzera lortzea, hauen babespena bermatzen delarik lanpostua uztea behartuak ikusten badira, bai epe mugatu batez edo betirako bada ere, eta gainera emakume hauek lanean txertatzea saiatzeko enplegurik ez duten kasuetan.

1.6.1. Besteren konturako langileen eskubideak

Langileen Estatutuko Testu moldatuaren 37.8, 40.4, 45.1.n), 48.10, 49.1.m), 52.d), 53.4, 55.5 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege-dekretuak onartua 10/2021 Legea, uztailearen 9koa, urrutiko lanari buruzkoa

- Lanaldia murrizteko eskubidea soldata era proportzionalan murriztuta, edo lan orduak berrantolatzeko eskubidea, ordutegia moldatuz, ordutegi malgua ezarri edota enpresan lanaldia antolatzeko erabiltzen diren beste modu batzuk baliatuz, emakumeak bere babesa edo gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubidea benetan gauza dezan. Eskubide horiek baliatu ahal izango dira hitzarmen kolektiboetan edo enpresaren eta langileen legezko ordezkarien arteko akordioetan kasu zehatz horietarako ezartzen diren baldintzetan, edo enpresaren eta eragindako langileen arteko akordioarekin bat etorriz.

- Mugikortasun geografikoaren eskubidea: zerbitzuak ematen zituzten herriko lanpostua uztera behartutako emakumeek, beren babesa edo gizarte laguntza integrala jasoko eskubidea gauzatzeko, lehenetsia izango dute enpresan beste lantoki batzuetan hutsik dituen talde profesional bereko edo kategoría parekide bateko beste lanpostu bat betetzeko unean. Enpresak lehenengo 6 hilabeteetan erreserbatuko du lanpostua.
- Genero indarkeriaren biktima izatearen ondorioz lanpostua uztera behartuta dagoen emakume langileak lan kontratua aldi batez baliogabetzeko eskubidea, lanpostua erreserbatuta.
- Genero indarkeriaren biktima izatearen ondorioz lanpostua uztera behartuta dagoen emakume langileak lan kontratua behin betiko baliogabetzeko eskubidea.
- Lan osoa edo zati bat urrutitik egiteko eskubidea, edo lan egiteari uztekoa, sistema hori ezarrita badago, betiere zerbitzuak emateko modalitate hori bateragarria bada pertsonak betetzen dituen lanpostuarekin eta eginkizunekin. Eskubide horiek baliatu ahal izango dira hitzarmen kolektiboetan edo enpresaren eta langileen legezko ordezkarien arteko akordioetan kasu zehatz horietarako ezartzen diren baldintzetan, edo enpresaren eta eragindako langileen arteko akordioarekin bat etorritik.
- Indarkeria generotik eratorritako egoera fisiko edo psikologikoen ondorioz lanerako hutsegiteak edo puntualtasun faltak frogatuz joko dira, baldin eta arretarako gizarte zerbitzuek edo osasun zerbitzuek hala egiaztatzen dutenean.
- Kontratua baliogabetearen deuseztapena, genero indarkeriaren biktima den langileak dagokion eskubide hauetako bat gauzatu duelako: lanaldia murriztea edo berrantolatzea, mugikortasun geografikoa, lantegiz aldatzea edo lan harremana aldi baterako etetea Langileen Estatutuan aitortutako zehaztapen eta baldintzetan.
- Diziplinazko kaleratzearen deuseztapena, genero indarkeriaren biktima den langileak dagokion eskubide hauetako bat gauzatu duelako: lanaldia murriztea edo berrantolatzea, mugikortasun geografikoa, lantegiz aldatzea edo lan harremana aldi baterako etetea Langileen Estatutuan aitortutako zehaztapen eta baldintzetan.

1.6.2. Ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen eskubideak

20/2007 Legea, uztailaren 20koa, Langile Autonomoen Estatutua arautzen duena

- Lan ordutegia langilearen beharren arabera antolatzearen eskubidea.
- Kontratuzko harremana uzteko eskubidea.
- Genero indarkeriaren egoera justifikaturiko arrazoia izango da langilearen jardura etenean.
- Gizarte Segurantzako kotizazioan onurak lehen aldiz alta hartzen duten edo unearen aurreko 2 urteetan alta emanda egon ez diren genero indarkeriaren biktimentzat, Norberaren konturako langile edo Autonomo gisa Gizarte Segurantzaren erregimen berezian alta indarrean sartzeko datatik hasita; eta norberaren konturako langile gisa hasten diren genero indarkeriaren biktimentzat, baita Nekazarien Norberako Konturako langileen sistema berezian jarduten dutenek ere.

1.7. Gizarte Segurantzako eskubideak

1.7.1. Gizarte Segurantzako kotizaziorako eskubideak

- Besteren konturako langileentzat aurreikusten den lanpostu gordez kontratua aldi baterako etetean, indarrean dagoen kotizazio alditzat joko da Gizarte Segurantzaren aurrean, xede hauetarako bada: jubilazioa, desgaitasun iraunkorra, heriotza eta bizirik irautea, amatasuna, langabezia eta minbiziaz edo beste gaixotasun larri batek jotako adingabeak zaintzea.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 165.5 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzaldiko Errege Dekretuak onartutakoa 1335/2005 Errege Dekretuko xedapen gehigarri bakarra, azaroak 11koa, Gizarte Segurantzako famili laguntzak erregulatzen dituena

- Gizarte Segurantzari ordaintzeko betebeharra sei hilabetez bertan behera uztea, babesteko edo gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubidea gauzatzeko jardura bertan behera uzten duten beren konturako langileen edo autonomoen kasuan.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa, 21.5 artikulua
Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 329 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua

- Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezi baten harpidetza egin da genero indarkeriaren biktima diren langileek beren lanaldiaz gain, soldata ere proportzio berean murrizten dutenean.

TAS/2865/2003 Ordena, urriak 13koa, Gizarte Segurantzako sistemaren hitzarmen berezi bat erregulatzen da

1.7.2. Gizarte Segurantzako prestazioei buruzko eskubideak

- Amatasun eta aitatasun prestazioei dagokienez, genero indarkeriaren biktima diren, bai beregaineko langileak eta baita besteren konturako langileak ere, alta emanda daudenaren egoera izango dute benetako kotizazio bezala kontsideratuak dauden epeen bitartean.

295/2009 Errege Dekretua, martxoak 6koa, Gizarte Segurantzako sistemaren prestazio ekonomikoak erregulatzen ditu amatasun, aitatasun, haurdunaldiaren arrisku eta edoskitzearen arrisku arloetan

- Genero indarkeriaren biktima izateagatik, eta langileari egotz ezin zaion arrazoiren batengatik, beren lanean erretiro aurreratua eskatu behar duten emakumeen pentsiorako eskubidea, baldin eta hauek beharrezko eskakizunak betetzen badituzte.

Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 207 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua

- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen suposatutako banaketa, dibortzio edo ezkontza deuseztapeneko kasuetan alargun pentsioa jasotzeko eskubidea, beharrezko eskakizunak betetzen badituzte.

Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 220 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua

- Dolozko giza hilketa batengatik epai irmo batekin kondenatua izan den pertsona baten alargun-pentsioaren onuradun ezin izatea, baldin eta delitu horren biktima bere ezkontidea edo ezkontide ohia, edo bere izatezko bikotea edo bikote ohia bada.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren lehen xedapen osagarria, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa
Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 231 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua

- Genero-arrakala murrizteko pentsio kontributiboaren osagarriarako eskubidearen onuradun ez izatea, legeak edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnek zehaztutako moduan, emakumearen aurkako indarkeriagatik kondenatua izan den aitari edo semeen edo alaben aurka indarkeria erabiltzeagatik kondenatua izan den aitari dagokionez.

Horretaz gain, guraso-agintea galdu duen aitari (bai bere betebeharrak ez betetzeagatik baita kausa kriminal edo ezkontzazkoak emanda ere) ez zaio ordainketa-osagarriaren eskubidea aitortuko.

3/2021 Errege Lege Dekretua, otsailaren 2koa, Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren eremuetan genero-arrakala eta beste gai batzuk murrizteko neurriak onartzen dituena

- Zuztasun eskubideak:
 - Zuztasun pentsioa: jasotzeko eskubidea dute genero indarkeriaren ondorioz hildako emakumearen seme alabek, filiazio harremana edozein izanik ere, baldin eta, hiltzeko unean, hogeita bat urte baino gutxiago badituzte edo lan egiteko gaitasunik ez badute eta ez badute besteren kontura edo beren kontura irabazizko lanik egin, edo halakorik eginez gero, jasotzen dituen irabaziaren urte osoko zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldatarako ezarritako zenbatekoa baino txikiagoa denean, eta emakumea alta emanda edo altarekin parekatutako egoeran badago.
 - Seme alabek erabateko zuztasun kasuetarako xedatutako igotzea jasotzeko eskubidea izango dute, eta oinarri arautzailearen ehuneko 70era arte jasoko dute, familia unitatearen errendimenduek une oro indarrean den lanbide arteko

gutxieneko soldataren ehuneko 75 gainditzen ez dutenean, urte osoa aintzat hartuta.

- Zurztasun prestazioa: hori jasotzeko eskubidea dute genero indarkeriaren ondorioz hildako emakumearen seme alabek, legeak edo nazioarteko tresnek zehaztu eta Espainiak berretsitako baldintzen arabera, erabateko zurztasunarekin pareka daitekeen egoeran badaude eta zurztasun pentsio bat eragiteko behar diren baldintzak betetzen ez dituztenean. Zurztasun prestazioa jasotzeko onuraduna izango da, baldin eta hildako unean hogeita bost urte baino gutxiago baditu edo besteren kontura edo bere kontura irabazizko lanik egiten ez badu, edo halakorik eginez gero, jasotzen dituen irabaziaren urte osoko zenbatekoa urte osoko lanbide arteko gutxieneko soldatarako ezarritako zenbatekoa baino txikiagoa denean.

Zurztasun prestazioa oinarri arautzailearen ehuneko 70era artekoa izango da, baldin eta familia unitatearen errendimenduek une oro indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 gainditzen ez dutenean.

Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 233 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua 3/2019 Legea, martxoaren 1ekoa, genero indarkeriaren biktimen eta emakumearen aurkako beste indarkeria mota batzuen biktima diren seme alaben zurztasun egoera hobetzen duena

- Langabeziako prestazioa lortu ahal izateko, beharrezkoak diren baldintzak betetzeaz gain, besteren konturako emakume langileak bere lan kontratua bere borondatez uzteko edo amaitzeko erabakia hartzen duenean, genero indarkeriaren biktima dela ulertzen da, kasu honetan legezko langabezia egoeran aurkituko litzatekeelarik.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa, 21.2 artikulua Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 267 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua

- Jarduera etenaldiagatik dagokion babes eskubidea izateko, beharrezko eskubideak betetzeaz gainera, langile autonomia jarduera etendako legezko egoeran dagoela ulertzen da genero indarkeriagatik, aldi baterako edo behin betiko, beren jarduera eteten dutenean.

Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 331 eta 332 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua

- Jarduera etenaldiagatik dagokion babes eskubidea izateko, beharrezko eskubideak betetzeaz gainera, lan kooperatibetako bazkide langile asoziatuak jarduera etendako legezko egoeran daudela ulertzen da genero indarkeriagatik, aldi baterako edo behin betiko, lana egiteari uzten diotenean.

Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 334 artikulua, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua

1.8. Lan-eskubideak eta lan munduan txertatzeko eskubideak

1.8.1. Enplegu programa zehatza

1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa:22.Art; Azaroak 21eko 1917/2008 – Errege Dekretua, genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak gizarte eta lan munduan txertatzeko programa onartzen duena

Genero indarkeria jasaten duten emakumeak, nor Enplegu Zerbitzu Publikoan lan eskatzaile bezala inskribaturik dauden, lan mundurako txertaketarako programan gehituak izan daitezke.

- Gizarte eta lan munduan txertatzeko ibilbide banakatua, pertsonal espezializatuak egina.
- Beren kontura laneratzeko trebakuntza heziketa espezifikoa.
- Norberaren konturako jarduera berri bat hasteko pizgarriak.
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresentzako pizgarriak.
- Mugikortasun geografikoa errazteko pizgarriak.
- Soldata aldeak konpentsatzeko pizgarriak.

- Hitzarmenak enprekin genero indarkeriaren biktimak kontratatzea eta euren mugikortasun geografikoa errazteko.

1.8.2. Genero indarkeriaren biktimen kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 21.3. artikulua

Genero indarkeriaren biktima diren emakume langileak ordezkatzeko bitarteko-kontratuak sinatzen dituzten enpresek Gizarte Segurantzako enpresako kuotaren hobari bat jasotzeko eskubidea daukate.

1.8.3. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresentzako pizgarriak

43/2006 Legea, abenduaren 29koa, hazkundera eta enplegua hobetzeari buruzkoa Azaroaren 21eko 1917/2008 Lege Dekretuaren lehen azken xedapena

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresek, Gizarte Segurantzako enpresako kuotaren hobari bat jasotzeko eskubidea izango dute, egiten den kontratuaren behin-behineko edo behin- betiko karakterearen araberatik aldatuko delarik hau.

1.9. Funtzionario publikoen eskubideak

1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa:24-26. artikulua Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena

Administrazio publiko hauetan lan egiten duten funtzionarioek: Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoko eta Ceuta eta Melilla hirietako Administrazioak, Tokiko Erakundeetako Administrazioak, erakunde publikoak, agentziak eta pertsonalitate juridikoa duten eta Administrazio Publikoekin lotuta dauden edo horien mendeko diren eskubide publiko gainerako erakundeak eta Unibertsitate Publikoak, eskubide hauek dituzte:

- Emakume funtzionarioen baimena genero indarkeriagatik: genero indarkeria jasaten duten biktima funtzionarioek arrazoituta lukete egun osoan edota tarte batean lanera ez agertzea, beti ere dagokion gizarte-arreta edo osasun zerbitzuek ezarritako epe zein baldintzetan.
- Genero indarkeriaren biktima diren funtzionarioek, beren babesa edo gizarte laguntza integralaren eskubidea gauzatzeko, eskubidea izango dute lanaldia murrizteko eskubidea ordainsaria era proportzionalan murriztuta, edo lan orduak berrantolatze eskubidea, ordutegia moldatuz, ordutegi malgua ezarri edota lanaldia antolatze aplikagarri diren antolatze beste modu batzuk baliatuz, eskumena duen Administrazio Publikoak egoera horietarako ezarritako baldintzetan.
- Mugikortasun genero indarkeriagatik: zerbitzuak ematen zituzten herriko lanpostua uztera behartutako genero indarkeriaren biktima diren emakumeek, beren babesa edo gizarte laguntza integrala jasoko eskubidea gauzatzeko, lanpostuz aldatzeko eskubidea izango dute bere taldean, eskalan edo kategorian profesionalen, eta ezaugarri beretan, estaltzeko postu bat egon beharrik gabe.

Mugikortasun prozedura Estatuko Administrazio Publikoen Idazkaritzaren 2015eko azaroaren 25eko Ebazpenak arautzen du, Estatuko Administrazio Orokorreko eta hari atxikitako edo haren mendeko diren gainerako Erakunde, Agentzia eta gainerako Erakunde Publikoetako genero indarkeriaren biktima diren langile publikoen mugikortasunaren prozedura ezartzen duenak.

Funtzio Publikoaren Idazkaritzaren 2018ko azaroaren 16ko Ebazpenaren bidez, Administrazio Publikoaren Sektoreko Konferentzia Hitzarmena argitaratu zen eta genero indarkeriaren biktima diren langile publikoen administrazio arteko mugikortasuna errazteko Hitzarmena onartu zen.

- Genero indarkeriagatik eszedentzia: genero indarkeriaren biktima diren funtzionarioek, beren babesa edo gizarte laguntza osoaren eskubidea gauzatzeko, eskubidea izango dute eszedentzia eskatzeko aurrez zerbitzuak denbora jakin

batez eman beharrik gabe eta halakorik eskatzeko iraute epe bat eskatu gabe.

Beste langile mota batzuen eskubideak euren berariazko legedietan zehazten dira; adibidez, irakasleen, Osasun Zerbitzuetako estatutu langileen edo Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiten duten langileen kasuan.

1.10. Eskubide ekonomikoak

1.10.1. Genero indarkeria jasaten duten eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako berariazko laguntza ekonomikoa

Genero-indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua eta abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretua.

Laguntza ekonomiko hau genero indarkeria jasaten duten eta honako baldintza hauek betetzen dituzten emakumeei dago zuzendua:

- Aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kenduta, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 gainditzen duen hilabeteko errentarik ez izatea.
- Lana lortzeko zailtasun bereziak izatea, adinaren, prestakuntza orokor nahiz bereiztua ez izatearen edo egoera sozialaren ondorioz; zailtasun horiek justifikatu egin beharko dira Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako Txostenaren bidez.

Laguntza ekonomiko hau epe bakarrean ordainduko da eta zenbatekoa, oro har, dagozkion langabezia sorospeneko hileko kopuru baten arabera kalkulatu da; emakumeak senitartekoen ardurarik duen kasuan edo ez hau aldatu egingo da, eta baita emakumeak elbarritasun maila aitortzen zaion senitarteko bat duenean ere edo emakumeak berak elbarritasun hau aitortua duenean.

Laguntza hau bateragarria da Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimei Laguntza eta Asistentzia emateko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusten diren laguntzekin, baita genero indarkeriaren egoerarengatik emandako autonomia erkidegoko edo tokiko beste edozein laguntza ekonomiko ere.

Bestalde, ez da bateragarria xede berbera duten beste laguntza batzuekin, ezta Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren programan parte hartzearekin ere.

Laguntza honek ez du, inondik inora, errenta konputagarriaren kontsiderazioa izango kotizazio gabeko pentsioen jasotzerako.

1.10.2. Gizarteratzeko errenta aktiboa

1369/2006 Errege dekretua, azaroak 24koa, behar ekonomiko bereziak eta lana aurkitzeko zailtasunak dituzten langabetuak Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren programa arautzen duena

“Gizarteratzeko errenta aktiboaren programa” onartuta dauden langabetuei aitortzen zaien laguntza ekonomikoa da; programa honen bidez lan merkatuan sartzeko aukerak handitzera bideratutako jarduerak gauzatzen dira.

Gizarteratzeko errenta aktiboaren programan onartua izateko eta laguntza ekonomiko honen onuradun izateko, genero indarkeria jasaten duen emakumeak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Genero indarkeria jasaten duela frogatzea.
- Enplegu eskatzailea izatea, baina ez da beharrezkoa enplegu eskatzaile gisa 12 hilabetez jarraian izena emanda egotea.
- Bere erasotzailearekin ez bizitzea.
- 65 urte baino gazteagoa izatea, nahiz eta ez den beharrezkoa izango 45 urte edo gehiago izatea.
- Aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kenduta, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 gainditzen duen hilabeteko inolako errentarik ez izatea.
- Gizarteratzeko errenta aktiboaren programa berri baten onuradun izan daiteke emakumea, eskaera-data baino 365 egun

lehenago beste programa baten onuraduna izan bada ere.

Gizarteratzeko errenta aktiboaren zenbatekoa unean indarrean dagoen hilabeteko Ondorio Anitzeko Errenta Adierazle Publiko (IPREM) delakoaren % 80koa da.

Gainera, programan onartua izateko eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan edota programan parte hartzen ari den bitartean biktima bizilekuz aldatzera behartuta izan baldin bada genero indarkeriaren ondorioz, ordainketa bakarreko laguntza gehigarria jasoko du, gizarteratzeko errenta aktiboaren hiru hilabeteko zenbatekoaren baliokidea hain zuzen ere.

1.10.3. Elikadura pentsioak ez ordaintzeagatiko aurrerakinak

Abenduak 7ko 1618/2007 Errege Dekretua, Elikagaien Ordaintzea Bermatzeko Funtsaren Antolaketa eta Funtzionamendua

Elikagaien Ordaintzea Bermatzeko Funtsaren bidez, judizialki onartutako hitzarmenetan edo banantzeko, dibortziatzeko, ezkontza deuseztatzeko, seme alabatasuneko edo elikagaietako prozesuetako ebazpen judizialetan onartu diren elikagaien ordainketa (ez ordainduak) betetzea bermatzen da, horretarako kantitate bat emango delarik aurrerakin gisa.

Aurrerakinaren pertsona onuradunak, orokorrean, judizialki onartua eta ez ordaindua dagoen elikagaien eskubidearen titularrak diren seme-alabak dira. Hauek familia-unitate baten parte dira eta beren baliabide eta sarrera ekonomikoek, urtero kalkulatuak eta bertan kontzeptu guztiak sartuz, ezin izango dute ondorengo kopurua gainditu: aurrerakin eskaeraren unean indarrean dagoen Ondorio Anitzeko Errenta Adierazle Publiko (IPREM) delakoaren urteko kopurua, familia unitatea osatzen duten seme- alaba adingabeen kopuruari dagokion koefizientearekin biderkatzean irteten den kantitatea.

Pertsona onuradunek eskubidea daukate elikagaien ordainketa bezala judizialki onartu zaien hileko aurrerakina jasotzeko, baldin eta honek ez duen hileko 100 euroko kopurua gainditzen. Gehienezko hemezortzi hilabeteetan zehar jaso ahal izango da aurrerakin hau.

Adingabe hauen (aurrerakina eskatzen eta jasotzen dutenak) zaintza eta kustodia daukan pertsona genero indarkeriaren biktima baldin bada, Funtseko aurrerakinak jasotzeko benetako behar bat dagoela ulertzen da, eta ondorioz presako prozedura bat hasten da, eskaera hau ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea bi hilabetekoa izango delarik.

1.10.4. Bizitzeko Gutxieneko Errenta

20/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 29koa, Bizitzeko Gutxieneko Errenta ezartzen duena

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek Bizitzeko Gutxieneko Errenta jaso ahalko dute, pobrezia-arriskua eta bakarrik bizi diren pertsonen gizarte-bazterketa saihesteko, baita oinarrizko beharrak asetzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duen bizikidetzako unitate batean bizi badira, honako baldintzak beteta:

- Ez zaie gutxieneko adinik eskatuko (oro har, BGE gutxienez 23 urteko pertsonentzat da), baldin eta adin nagusikoak badira.
- Ez daude behartuta ezkontza edo izatezko bikote bidez elkartuta egotera.
- Ez zaie eskatzen beste bizikidetzako unitate bateko kide izatea. Gainera, bizikidetzako unitate hartuko da genero-indarkeriaren biktima den pertsona batek bere ohiko bizilekua seme-alabekin edo zaintza-erregimenean edo familia-harrera iraunkorrean dauden adingabeekin utzi behar izan badu, eta kontuan izango dira ere haren bigarren mailako senideak (bai odolkidetasuna, ezkontza-ahaidetasuna edota adopzioa kontuan izanda).
- Ez zaie eskatuko Espainian bizilekua izatea genero-indarkeriako egoera egiaztatzen badute abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritako bideetako edozein erabiliz.

1.10.5. Babestutako etxebizitza zein zahar egoitza publikoetan plaza bat eskuratzeko lehentasuna

Genero-indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurri buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 28. artikulua 1/2013 Legea, maiatzaren 14koa, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurri buruzkoa 106/2018 Errege Dekretua, martxoaren 9koa, 2018-2021 Estatuko Etxebizitza Plana arautzen duena TMA/336/2020 Agindua, apirilaren 9koa, 2018-2021 aldirako Estatuko Etxebizitza Plana, COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoan premiazko neurri osagarriak onartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 10., 11. eta 12. artikuluetan xedatutakoa betez

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak lehentasunezko babes eskubidea duen taldea dira eskubidea lortzeko unean:

- Hipoteka exekuzio baten prozesu judizial edo judizios kanpoko batean hitzartutako ohiko etxebizitzatik botatzea aldi batez etetea eskatzeko eskubidea.
- Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko Alokairuko Etxebizitzen Gizarte Funtsean sartzeko eskubidea. http://www.imserso.es/imserso_01/fsva/index.htm.
- “Lehentasunezko sektore” gisa hartzen dira Etxebizitzaren Estatu Planean aurreikusitako laguntzetan (besteak beste, hitzartutako maileguak diruz laguntzeko programan, etxebizitza alokatzen laguntzeko programan, ohiko etxea utzarazteko edo etxetik botatzeko egoeran dauden pertsonak laguntzeko programa):
 - Genero indarkeriaren biktimatzat ziurtatutako biktimaren bat dagoen edozein bizikidetzako unitate;
 - Genero indarkeriaren ondorioz umezurtz geratu den adingabearen guraso-ahala, tutoretza edo betiko familia harrera hartu duen pertsona bat dagoen edozein bizikidetzako unitate.
- Genero indarkeriaren biktimei zuzendutako laguntza-programa, bizitokiaren arazoa berehala konpondu ahal izateko. Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melillak pertsona onuradunaren eskura titulartasun publikoa duen edota administrazio publikoren batek erabiltzeko utzi den etxebizitza bat jarriko dute, nahiz eta horrek titulartasun pribatua mantendu. Pertsona horrek behar dituen tamaina, zerbitzu eta kokaleku-beharrak kontuan izango dira, eta etxebizitza erabiltzeko alokatu edo erabilera lagatuko da, baita aldi baterako onartutako etxearen okupazio-araubideak eskaintzen dituen beste formak eskaini ere. Horrelako etxebizitzarik ez dagoenean, laguntza etxebizitza egoki bati aplikatu ahal izango zaio, titulartasun pribatukoa edo onuradunek bete dezaketen edozein bizitoki edo bizitegi-zuzkidurari, araubide berberetan.

1.11. Berehala eskolatzeko eskubidea

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, 5 artikulua eta hamazazpigarren xedapen gehigarria, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurri buruzkoa

Jasandako genero indarkeriazko ekintzen ondorioz bizilekuz aldatu behar izan duten emakumeen seme-alabek beren bizileku berrian berehala eskolatzeko eskubidea dute.

1.12. Bekak eta diru-laguntzak

688/2018 Errege Dekretua, uztailaren 27koa, errentaren eta familia ondarearen mugak eta 2018-2021 ikasturterako ikasketa beken eta laguntzen zenbatekoak ezartzen dituenak, eta beken eta ikasketa laguntza pertsonalizatuak zehazten dituen abenduaren 21eko 1721/2007 Errege Dekretua aldatzen duena

Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten beka-eskatzaileri (2019ko ekainaren 30etik 2021eko ekainaren 30era) eta/edo haien hogeita hiru urtetik beherako seme-alabei berriazko tratamendua eskaintzen zaie, baldin eta beka eta ikasketak-laguntza horiek eskatu eta honako hauetako baldintzak betetzen badituzte: indarrean dagoen araudia, oinarritzko beka edo matrikula-beka (dagokionaren arabera), errentari lotutako zenbateko finkoa edo bizilekuari eta formula aplikatuzetik ateratzen den zenbateko aldakorra. Ez zaie aplikatuko 2019-2020 ikasturtean gainditutako eskola-kargari buruz ezarritako baldintzarik eta bekadun gisa emandako urte-kopuruaren mugarik, eta 2020-2021 ikasturtean kreditu, irakasgai, modulu edo horien or-

du-baliokideen ehuneko jakin bat gainditzeko eskakizunik ez zaie egingo.

1.13. Segurtasun arazoan ondoriozko erroldatze-berezitasunak

Ebazpena, 2020ko abenduaren 2koa, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakartzarena eta Autonomia- eta Toki-lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, honako ebazpen hau aldatzen duena: ebazpena, 2020ko otsailaren 17koa, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakartzarena eta Autonomia eta Toki Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, udalei udal-errolda kudeatzeko jarraibide teknikoak ematen dizkiena

Gizarte-laguntza integraleko baliabideen sarearen babespean dauden edo bizi diren genero-indarkeriaren biktimak, hala nola tutoretzapeko etxebizitzak, harrera-etxeak edo sare horretako beste baliabide batzuk, eta benetako bizilekuan erroldatzea ezinezkoa bada segurtasun-arrazoiengatik, benetan bizi diren udalerriko gizarte-zerbitzuek zehazten duten lekuan egin ahal izango da erroldatze hori (gizarte-erakunde baten egoitza izan daiteke). Edo bere udalerrian egoitza duen edozein herri-administrazioen gizarte-zerbitzuen, edo haiek adierazitako beste edozein helbiderena, betiere udalerrri horren barruan), dagokion balorazio tekniko egin ondoren, eta honako hauek bete beharko dira:

- Gizarte-zerbitzuak eta erreferentziako instituzio soziala Administrazio Publikoren baten egitura organikoaren barne edota administrazio horren koordinaziopean eta kontrolpean egotea.
- Gizarte-zerbitzu horien arduradunek erroldatzea helburu duten pertsonen udalerriko bizilekuaren ohikotasunari buruz informatzea.
- Gizarte-zerbitzuek erroldan agertu beharreko helbidea adieraztea kale-izendegiko erreferentziaren bidez, eta helbide horretan Administrazio Publiko baten komunikazioaren bat jasoz gero horren berri ematearen konpromisoa hartzea.

14. Abizenak edo identitatea aldatzeko eskubidea

Uztailaren 21eko 20/2011 Legea, Erregistro Zibilekoa, apirilaren 28ko 6/2021 Legeak aldatua

Genero-indarkeriaren biktimentzat edo haien ondorengoentzat, baldin eta bizikidetzako familia-gunean integratuta badaude edo egon badira, Erregistro Zibilaren arduradunak baimendu ahal izango du abizenak aldatzea, horiek oro har aurreikusitako baldintzak bete beharrik izan gabe (hau da, ez dituzte bete behar proposatutako abizena egiteko egoera bat izateko baldintzak, eta interesdunak erabili ohi du; batu edo aldatu nahi diren abizenak legez eskatzailearenak izatea; aldatetaren ondoriozko abizenak lerro beretik ez etortzea), zehaztutako prozeduraren arabera.

Kasu horietan, larrialdi edo segurtasun arrazoiengatik guztiz aldatu ahalko da identitatea, aurreko baldintza orokorrak bete gabe ere, araudiaren arabera zehaztutako prozedurarekin bat.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUME ATZERRITARREN ESKUBIDEAK **2**

2.1. Genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek Espainian bizilekua izateko egoera

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa 17.1 artikulua
4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa 4/2000 Lege Organikoko Erregelamendua, apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartua
240/2007 Errege Dekretua, otsailak 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako hiritarrek Espainian daukaten sarrera, zirkulazio askea eta bizilekuari dagokiona eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatuiei buruzkoa

Genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek Espainian bizilekua izateko egoerak ondorengo aukerak biltzen ditu:

2.1.1. Europar Batasuneko estatu kideetako hiritarren familia-izaera duten edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatu bateko hiritarren familia-izaera duten emakume atzerritarrek

Otsailak 16ko 240/2007 Errege Dekretua, 9.4 artikulua, Europar Batasuneko estatu kideetako hiritarrek Espainian daukaten sarrera, zirkulazio askea eta bizilekuari dagokiona eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatuiei buruzkoa

Ezkontza deuseztasuna, dibortzioa edo erregistraturiko bikotearen ezerezteak dagoen kasuetan bizileku eskubidea mantendu ahal izateko, Europar Batasuneko Estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoko Hitzarmeneko Estatu bateko nazionala ez den emakumeak, genero indarkeriaren biktima izan dela egiaztatuta beharko du erregistraturiko bikotean edo ezkontzan. Hau egiaztatuta gelditzeko beharrezkoa izango da, behin-behineko egoera batean, biktimaren aldeko babes agindu bat edo Ministerio Fiskalaren txosten bat egotea, bertan genero indarkeriaren zantzuak egon direla azalduko delarik; eta behin-betiko egoera batean ondoren, noiz alegaturiko baldintzak gertatu direla ondorioztatzen dituen ebazpen judizial bat egongo den.

2.1.2. Erkidegokoa ez den emakume atzerritarra: genero indarkeriagatik bizileku eta lan baimenerako dauden bi motatako baten titularra izan daiteke:

- Bizileku eta lan baimen independentea beren ezkontide edo bikotearekin berrelkarturiko emakume atzerritarrentzat:

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 19.2 artikulua 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko 59.2 artikulua, apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartua

- Emakumearen alde babes agindu bat dagoenean edo Ministerio Fiskalak, genero indarkeriaren zantzuak daukela azaltzen duen txosten bat egiten duenean, honek baimena lortu dezake.
- Baimenaren iraupena: 5 urte.
- Egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek, salbuespeneko inguruabarrengatik, bizileku eta lan baimena lortu dezakete:

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 31 bis artikulua
4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko 131 eta 134. artikulua, apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartuak

- Emakumearen alde babes agindu bat egon denetik edo Ministerio Fiskalak, genero indarkeriaren zantzuak daudela azaltzen duen txosten bat egiten den unetik, baimen eskaera bat egin daiteke.
- Emakumea genero indarkeriaren biktima izan dela ondorioztatzen duen kondena-epai edo ebazpen judizial batekin amaitzen den prozedura penal bat dagoenean baimena emango da, eta baita inputatuak egonleku ezezaguna daukanean edo salatuaren kanporatzeagatik behin-behineko largespena egiten denean ere.
- Baimenaren iraupena: 5 urte. Hala ere, 5 urte hauen bitartean emakumea iraupen luzeko bizileku egoeran sar daiteke,

- aurrez eskera eginik. Honetarako behin behineko bizileku eta lan baimen baten titularra izan den denbora zenbatuko da.
- Salbuespeneko inguruabarrengatik bizileku baimena beren seme-alaba adingabeentzat, ezgaitasun bat daukatenean edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenean. Eta lan baimena 16 urte baino gehiago edukiz, salaketaren unean Espainian zeuden seme-alabentzat ere: bizileku eta lan baimen hau emakume atzerritarrek eskatu beharko du salbuespeneko inguruabarrengatik bere baimena eskatzen duen unean, edo prozesu penala irauten duen beste edozein unetan ere. Honen emakida eta iraupena, egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek salbuespeneko inguruabarrengatik jasotzen duten bizileku eta lan baimeneko baldintza berdinetan gertatzen da.
 - Salbuespeneko inguruabarrengatik baimen hau ematen duen administrazioko agintari eskudunak, emakume atzerritarren aldeko behin-behineko bizileku eta lan baimen bat emango du, eta, hala badagokio, behin-behineko bizileku eta lan baimenak emango dizkie beren seme-alaba adingabeentzat, ezgaitasun bat daukatenean edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenean, baldin eta hauek Espainian aurkitzen ziren salaketaren unean. Behin-behineko baimen hauek, salbuespeneko inguruabarrengatik emandako baimenak betirako ematen edo ezeztatzen diren unean amaituko dira.
 - Behin-behineko bizileku eta lan baimenak eman ostean, emakume atzerritarrek eskubide hauek atzitu ahal izango ditu:
 - Gizarteratzeko errenta aktiboa, Espainian legez bizi diren emakume atzerritarrek, eta eskatutako gaineako baldintza guztiak betez gero, duten eskubidea da.
 - 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluko laguntza ekonomikoa, Espainiako bizileku eta lan baimenaren titular diren genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek eskubidea dutena, baldin eta eskatutako eskakizunak betetzen badituzte.

2.1.3. Behin-behineko bizileku baimena eta inorentzat lan egiteko baimena daukan emakume atzerritarri, baimen hau epe agortzeagatik berrituko zaio baldin eta, genero indarkeriaren biktima izateagatik, lan kontratua azkentzen den edo lan-harremanaren amaiera gauzatzen den

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 38.6 artikulua

2.2. Genero indarkeriaren biktima diren eta egoera irregularrean dauden emakume atzerritarren babespena

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 31 bis artikulua 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko 131 eta 134. artikulua, apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartuak

- Genero indarkeriako egoera bat salatzean, emakume atzerritarren egoera irregularren berri emango balitz:
 - Espainiako lurraldean egoera irregular batean egoteagatik ez da administrazio prozedura zehatzailerik (arau-hauste larria) irekiko.
 - Salaketaren aurretik arau-hauste honengatik jada hasita zegoen administrazio prozedura zehatzailea eten egingo da eta, hala badagokio, onartuta dauden kanporatzeko edo itzultzeko aginduak ere eten egingo dira.
- Behin prozedura penala amaitutakoan:
 - Emakumea genero indarkeriaren biktima izan dela ondorioztatzen duen kondena-epai edo ebazpen judicial batekin, eta baita inputatuak egonleku ezezaguna daukalako auzia artxibatzen denean edo salatuaren kanporatzeagatik behin-behineko largespena egiten denean, emakume atzerritarren aldeko behin-behineko bizileku eta lan baimena emango da eta, hala badagokio, behin-behineko bizileku eta lan baimenak emango zaizkie beren seme-alaba adingabeentzat, ezgaitasun bat daukatenean edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenean.
 - Kondena-epaia ez dagoenean edo genero indarkeria egon dela ondorioztatu ezin dezaken ebazpen batekin, behin-behineko bizileku eta lan baimena ezeztatuko zaio emakumeari salbuespeneko inguruabarrengatik eta, hala

badagokio, behin-behineko bizileku eta lan baimenak kenduko zaizkie beren seme-alaba adingabeei, ezgaitasun bat daukatenei edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenei ere. Gainera, emakume atzerritarrari emandako behin-behineko bizileku eta lan baimenak eraginkortasuna galduko du eta, hala badagokio behin-behineko baimenak kenduko zaizkie beren seme- alaba adingabeei, ezgaitasun bat daukatenei edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenei ere. Gainera, Espainiako lurraldean egoera irregular batean egoteagatik administrazio prozedura zehatzailea hasi edo jarraituko da.

2.3. Nazioarteko babesa jasotzeko eskubidea

12/2009 Legea, urriak 30ekoa, asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen

- **Asilo eskubidea.** Errefuxiatu egoera aitortuko zaio genero arrazoiengatik jazarriko dela beldur oinarritu bat dela eta, bere jatorrizko herrialdetik kanpo dagoen emakume atzerritarra, beldur horien ondorioz, herrialde hartako babesa jaso ezin duena edo nahi ez duena; edo aberrigabea den emakumea, nazionalitaterik izan gabe eta beren jatorrizko herrialdetik kanpo egonik, arrazoi berengatik bertara itzuli ezin duenean edo nahi ez duenean. Zentzu horretan, jazarpen arrazoiak izan daitezke bikotekide batek edo bikotekide ohi batek eragindako genero indarkeria edo emakumearen aurkako beste edozein indarkeria, hala nola, emakumeen mutilazio genitala, behartutako ezkontzak, sexu indarkeria edo sexualki esplotatzeko emakumeen eta nesken salerosketa, baldin eta asilo eskubidea aitortzeko eskatutako gainerako baldintzak ere betetzen badira.
 - Asilo eskubidea aitortzeko beharrezkoa izango da jazarpen pairatzearen beldur izateko arrazoi hori larria izatea eta indarkeria fisikoa edo psikikoa azaltzen dituen ekintzetan oinarritua egotea, baita indarkeria sexuala ematen den kasuetan ere.
 - Jazarpenaren arrazoiak baloratzeko jatorrizko herrialdean aipatu gizarte taldeak bizi duen egoera baloratu behar da, kasu honetan, emakumeek.
- **Babes subsidiarioa.** Babes subsidiarioa emango zaie emakume atzerritar eta aberrigabeei, asiloa lortzeko eskatutako baldintzak bete ez arren, jatorrizko herrialdera, edo aberrigabeen kasuan, aurrez bizi ziren tokira, itzuliz gero kalte larri bat jasateko benetako arriskua duten horiek. Babes subsidiarioa aitortzeko kalte larrietako batzuk hauek dira:
 - Heriotza zigorra
 - Tortura edo tratu anker edo umiliagarriak
 - Bizitzaren edo zibilen integritatearen aurkako mehatxu larriak gatazka egoeretan.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ESPAINIAKO EMAKUMEEN ESKUBIDEAK LURRALDE NAZIONALETIK KANPO

3

A tzerrian bizi diren Espainiako emakumeek genero indarkeria jasaten dutenean, ahultasun egoera berezian egon daitezke, hizkuntza eta kultura oztopoek, gizarte-saririk ez izateak edo herrialdean dituzten baliabideak ez ezagutzeak eragindakoak. Beraz, botere publikoek genero indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa, asistentzia eta babes emateko duten betebeharrak gain, atzerrian bizi diren Espainiako hiritarrak babesteko betebeharrak orokorra ere gehitzen da.

Horretarako, 2015eko urriaren 8an Atzerri Gaietarako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak eta Presidentetzaren, Gortetikiko Harremanen eta Berdintasunaren Ministerioak sinatutako Protokolo bat dago, non lankidetzako marko komun bat ezarri nahi den genero indarkeriari buruzko funtzioak gauzatzeko, genero indarkeriako egoerak prebenituz eta haiei ekinez, bizi den herrialdean eskura diren baliabideei buruzko informazioa emanaz eta genero indarkeriaren biktimak eta, hala balegokio, eta egoerak hala eskatzen duenean, beren seme alabak babestea eta itzultzea erraztea, indarrean diren araudiei jarraikiz.

Espainiako Enbaxadek eta Kontsul-etxeek eta Lan eta Gizarte Segurantzako Kontseilariak bizi diren herrialdean

diren genero indarkeriaren biktimetan espezializatutako baliabideekin harremanetan jartzeko informazioa emango zaie emakume espainiarrei, baita genero indarkeriako egoeretan tokiko agintariak ezarritako mediku-, hezkuntza- eta lege-baliabideei buruzko orientazioa ere.

Bestalde, emakumea itzuliko balitz, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza arduratuko da Autonomia Erkidegoekin koordinazio lanak egiteaz, Espainiako araudiak emakumeei aitortzen dizkien eskubideak bermatzeko eta gizarteratzen laguntzeko.

Espainiako nazionalitatea duten baina atzerrian dauden adingabeen interesen babes Enbaxadek eta atzerrian dauden Espainiako Bulego Kontsularrek kudeatu beharko dute. Espainiara bueltatzen bada, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak, Kanpoko Espainiar Arazo eta Arazo Kontsularren Zuzendaritza Nagusiak eta Eskubide Sozialen eta Agenda 2030en Ministerioak kudeatuko dute, Hautzaroaren eta nerabezaroaren eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak (Indarkeriaren aurkako hurren eta nerabeen babes integralari buruzkoa) xedatzen duenaren arabera.

DELITUAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK ZEINTZUEN JABE DIREN HALABER, GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK **4**

Genero indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumeek, 1/2004 Lege Organikoak aitortzen dizkien berriazko eskubideez gain, legeek delituaren biktimei aitortzen dizkieten eskubide berberak dituzte. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

4.1. Delituaren biktimaren estatutuaren eskubideak

4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren biktimaren estatutuari

Genero indarkeriaren biktimek Delituaren biktimaren estatutuan bildutako eskubide orokorren katalogora sarbidea dute, prozesukoak nahiz prozesuz kanpokoak izan. Delituaren biktima zuzenaren ezkontidea edo pareko afektuzko harreman baten bidez harekin batuta egon den pertsona ez da delituaren zeharkako biktimatzat joko ekintzen ardura izan denean.

Eskubide horietako batzuk hauek dira:

- Eskumena duten agintariengandik informazioa jasotzeko eskubidea lehen unetik, salaketa aurkeztu aurreko unekoa barne.
- Salaketa aurkezteko unean, salaketaren kopia bat lortzeko eskubidea, behar den moduan ziurtatuta, eta, hala balegokio, kopia horren idatzizko itzulpena jasotzearena.
- Ebazpen jakin batzuk jakinaraztea horrelakorik eskatu beharrik gabe, ikertuaren, auzipetuaren edo kondenatuaren zigor egoeraren berri izan dadin: arau-hauslea espetxera joatea edo handik ateratzea adosten duten ebazpenak, edo espetxetik ihes egin izana; kautelazko neurriak hartzea edo jada adostutakoak aldatzen dituzten ebazpenak, biktimaren segurtasuna bermatzea xede dutenean.
- Administrazio publikoek eskainitako laguntza eta babes zerbitzuak doan eta konfidentziasunez jasotzea, baita Biktimen Arreta Bulegoek eskaintzen dituztenak ere. Bulego horiek funtzio hauek egingo dituzte, besteak beste:
 - Babes emozionala eman biktimei eta laguntza terapeutikoa halakorik behar duten biktimei, delituaren ondorio traumatikoak gainditzeko laguntza psikologiko egokia bermatuz.
 - Biktimaren beharrak eta ebaluatzea eta horiei buruz aholkularitza ematea eta hasierako biktimizazioa, etengabekoa eta bigarren mailakoa, intimidazioa eta errepresalien ondorioak prebenitzea eta saihestea.
 - Babes psikologiko baten plana egitea biktima ahulentzat eta babes-agindua aplikatzen den kasuetan.
 - Biktimari laguntza emateko eskura dauden zerbitzu espezializatuak buruzko informazioa, egoera pertsonala eta jasan duen delituaren izaera kontuan hartuta.
 - Prozesuan biktimari laguntzea.
 - Delituaren biktimaren Estatutuko 7.1 artikuluan aipatzen diren ebazpenen komunikazioak jasotzea (epaia, kautelazko neurriak hartzen dituzten ebazpenak eta abar) eta informatzeko eta laguntzeko ekintzak gauzatzea, halakorik beharko balitz.
- Prozedura Kriminalaren Legean xedatzen denari jarraikiz zigor ekintzak eta ekintza zibilak gauzatzeko eskubidea.
- Exekuzioan parte har dezakete, ebazpen judicial batzuren aurkako helegitea jarrita, kasun aldeetako bat izan ez badira ere:
 - Espetxe-zaintzako Epaileak zigorraren erdia bete baino lehen zigortuari hirugarren gradua ematea baimen dezakeela dioen autoa.
 - Espetxe-zaintzako Epaileak espetxe-onurak, irteteko- baimenak, hirugarren maila ematea eta baldintzapeko askatasunaren denbora zigorra betetzeari dagokiola eta ez ezarritako zigorraren baturari dioen autoa. Zigortuari baldintzapeko askatasuna ematen zaion autoa.

4.2. Salaketa jartzeko eskubidea

Prozedura Kriminalaren Legea, 259. artikulua eta ondorengoak

Emakumeek eskubidea dute pairatzen dituzten genero indarkeriazko egoerak salatzeke.

Salaketaren bidez arau-huste penala izan daitekeen gertaeraren berri ematen zaio dagokion agintaritzari.

Behin salaketa aurkeztu denean eta hau agintaritzak judicialari eman zaionean, honek delituzko egitate bat egon dela ulertzen badu, dagozkion akzio kriminalak hasiko ditu.

4.3. Babes agindu bat eskatzeko eskubidea

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 62. artikulua
 Prozedura Kriminalaren Legea: 544 hirug. artikulua

Babes agindua dagokion organo judizialak ezartzen duen ebazpen judiziala da. Honek, delitu bat egon denaren zantzuak daudenean, biktima arrisku egoera objektibo batean dagoela onartzen du eta bera babestea agintzen du jardunbide penala bideratzen den bitartean.

Babes ordenak, genero indarkeriaren biktima den emakumearen eta seme- alaben alde dauden oinarri kriminal eta zibileko kautela neurriak begiesten ditu ebazpen bakar batean, eta aldi berean Administrazio Publiko desberdinek biktimen alde ezarritako gizarte babespen mekanismoak jartzen ditu martxan. Babes aginduarekin frogatuta gelditzen da emakumeak genero indarkeria jasaten duela, eta ondorioz 1/2004 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideak aitortzen zaizkio.

Zigor izaerako kautelazko neurriak hauetako bat edo gehiago izan daitezke:

- Erasotzaileari familia bizi den etxea uztea agintzen zaio.
- Herri jakin batean bizitzea debekatzen zaio.
- Erasotzaileari debekatu egiten zaio Epailak zehaztutako distantzia errespetatu gabe biktimarengana eta/edo honen senitartekoengana nahiz beste pertsona batzuek hurbiltzea.
- Erasotzaileari debekatu egiten zaio edozein bitartekoren bidez (gutunez, telefonoz...) biktimarekin eta/edo honen senitartekoekin nahiz beste pertsona batzuekin komunikatzea.
- Erasotzaileari debekatu egiten zaio leku jakin batzuetara gerturatzea: biktimaren lantegira, seme-alaben ikastetxera...
- Biktimaren bizilekuari buruzko datuak ezkututzen dira.
- Biktimari babes judiziala eskaintzen zaio bulego judizialean.
- Armak konfiskatzen dira eta armak izatea debekatzen da.

Neurri zibil hauek har daitezke:

- Familiaren etxebizitza erabiltzea esleitzea.
- Seme-alaba adingabeen zaintzaren eta babespenaren erregimena zehaztea.
- Adingabeekin egoteko bisitak, komunikazioa eta tokia zehaztea.
- Mantenu prestazio bat ezartzea.
- Arriskutik urruntzeko edo kalteetatik babesteko beharrezko den beste edozein neurri.

Eskaera biktimak berak, bere hurbileko senitartekoei, abokatuak edo Ministerio Fiskalak berak egin dezake. Salaketa egiteko kalterik gabe, bere egoera ezagutzen duten gizarte zerbitzuek organo judizialaren edo Ministerio Fiskalaren jakintzan jarri behar dute, babes ordenaren prozedurarentzat espedientea irekitzeko edo hau prestatzeko. Adingabeek daudenean, Epailak erabaki beharko du, ofizios bada ere, neurri zibilak hartzea egokia ote den.

Babes-agindua salaketa jartzen den unean bertan eskatzea gomendatzen da, nahiz eta geroago ere eska daitekeen.

Salaketarik aurkezten ez denean, babes-agindua bera hartzen da salaketatzat, eta bertan kontaktzen diren indarkeriazko gertaera eta egoerak hartzen dira kontuan.

Eskaera egin ondorengo 72 orduko epearen barruan eman behar du Epaitegiak babes agindua, biktimaren eta erasotzailearen agerraldi baten ondoren. Legeak xedatzen du agerraldi hori bereizita egin behar dutela biktimak eta erasotzaileak, bien arteko aurrez aurrekoak saihesteko.

4.4. Babes agindu europar bat eskatzeko eskubidea

23/2014 Legea, azaroaren 20koa, Europar Batasuneko zigor ebazpenak elkar aitortzeari buruzkoa

Genero indarkeriaren biktima Europar Batasuneko beste herrialde kide batera doanean bizitzera edo han egotera, eta hartutako babes neurri baten onuraduna denean, direla kautelazko neurriak dela eskubideak kentzea babes agindu batean, kautelazko neurrien auto batean edo epai batean, babesteko Europako agindua hartzea eska dezake dagokion organo judizialaren aurrean.

Organo judizialak igorritako Europako babes agindua ziurtagiri batean dokumentatuko da eta beste herrialde kide hartan eskumena duen agintaritzari bidaliko zaio exekuta dezan.

4.5. Jardunbide penalean alderdi izateko eskubidea: akzioak eskaintzea

Prozedura Kriminalaren Legea, 109. artikulua eta ondorengoak

Epaileak biktimari deklarazioa hartzeko akzioan, Idazkari judizialak prozesu penalean parte hartzeko aukera daukala jakinaraziko dio eta gauzaren itzultzeari uko egin edo ez, kaltearen konponketa eskatu eta akzio zigorgarriak eragindako kaltearen ordaina eskatu dezakeela ere esango dio.

Eskubide honek aukera ematen dio genero indarkeria jasaten duen emakumeari aktiboki esku hartzeko salaketa egin ondoren abiarazitako prozesu judizialean eta akzio penalaren eta, hala dagokionean, akzio zibilaren gauzapenean: biktima “akusazio partikular” gisa ager daiteke jarduera penaletan, eta horretarako bere interesak defendatuko dituen abokatu bat eta bere ordezkari izango den prokuradore bat izendatu behar ditu.

Gainera, eskubideari uko egin ez dioten biktimek, noiznahi, delitua kalifikatzeko tramitea baino lehenago zigor akzioa gauzatu ahal izango dute.

Profesional hauek biktimak berak libreki hauta ditzake, edota Genero Indarkeriaren Ofiziozko Txanda Bereziaren bidez izenda daitezke (doako justiziaren onura).

Biktima jardunbide penalean agertzeak eta bertan “alderdi” izateak eskubidea ematen dio bere abokatuaren bitartez froga eginbideak proposatzeko, eginbide horien gauzapenean esku hartzeko, prozesuak dirauen bitartean hartzen diren erabaki guztiak ezagutzeko eta, erabaki horiekin ados ez badago, beharrezko helegiteak aurkezteko.

Era berean, akusazio partikular gisa, biktimak erasotzailea zigortzea eska dezake, baita jasandako lesio eta kalte galerengatiko ordaina jasotzea ere.

Ministerio Fiskalaren ardura da biktimen eta kaltetuen interesak defendatzea jardunbide penaletan. Delitua egin dela iruditzen bazaio, horren erantzule jotzen duenaren aurka zuzenduko du akusazioa, biktima prozedura penalean agertu bada nahiz agertu ez bada. Deliturik egin ez dela iruditzen bazaio, ez du akusaziorik egingo edo jardunbidea artxibatzea eskatuko du, adibidez gertaeren froga nahikorik ez dagoela iruditzen bazaio.

4.6. Gauza itzultzeko, kaltea konpontzeko eta sortutako kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea

Prozedura Kriminalaren Legea, 100. artikulua eta ondorengoak

Delitu bat egiteak, suertaturiko kalte-galerak konpontzea behartuko du. Erantzukizun zibil honek gauzaren itzultzea, kaltearen konponketa eta kalte material eta moralen ordaina ematea ekarriko du.

Biktimak prozesu penalean akzio zibila egikaritu baldin badu (erantzukizun zibil hau eskatzeko), ematen den epaian, baldin eta hau kondena-epaia den, errudunari ezartzen zaion zigorraz gain, honek daukan erantzukizun zibila ere ezarriko da, hau delituaren biktimari eragin zaion kalte fisiko, psikologiko edo kalte moralaren arabera mugatuko delarik.

Hala ere, biktimak bere eskubidea erreserbatu ahal izango du akzio zibila prozesu desberdin batean egikaritzeko Arlo Zibileko Auzitegietan, horrela prozesu penalean ez delarik akzio zibila egikarituko. Zentzu honetan gainera, edozein erreklamazio galdatzeko aukera izango du.

4.7. Jarduera judizialei buruz informazioa jasotzeko eskubidea

Biktimak, prozesu penalean esku hartzeko duen eskubidea erabili ez arren, prozesu horretan duen zereginari buruzko informazioa jaso behar du, baita prozesuaren helmenari, garapenari eta abiadurari buruzkoa.

Biktimak bere eskubideei buruzko informazioa jasotzeko lana Segurtasun Indar eta Kidego, Epaitegi eta Biktimaren Arretarako Bulegoa izango da.

Informazio honen edukia ondorengo hau izango da:

- Prozesu penalean parte hartzeko aukera daukala jakinarazi behar zaio eta gauzaren itzultzeari uko egin edo ez, kaltearen konponketa eskatu eta delitu akzioak eragindako kaltearen ordaina eskatu dezakeela ere esan behar zaio.
- Indarrean dagoen legeriaren arabera jaso ditzaken laguntzak eskatzeko aukera eta prozedurei buruz jakinarazi behar zaio.
- Jarduera judizialen egoerari buruzko informazioa jasotzea, baita jarduera horiek aztertzeko eta horien kopia eta lekukotasunak jasotzea ere. (Botere Judizialaren Lege Organikoa:234. artikulua).
- Biktimari bere segurtasunean eragin lezakeen edozein erabaki jakinarazi behar zaio: babes agindua, beste kautelazko neurri batzuk hartzea edo moldatzea, inputatuaren espetxeratzea edota baldintzapeko askatasuna agintzen duten autoak, eta erasotzailearen espetxe-egoera. (Prozedura Kriminalaren Legea:109, 506.3, 544. bis eta ter artikulua).
- Ahozko epaiketaren lekua eta data jakinarazi behar zaizkio. (Prozedura Kriminalaren Legea:785.3, 962. eta 966. artikulua).
- Epaia jakinarazi behar zaio, bai instantziarena, baita, hala dagokionean, apelazio-helegitea ebazten duena ere. (Botere Judizialaren Lege Organikoa:270. artikulua; Prozedura Kriminalaren Legea:789.4, 792.2, 973.2 eta 976.3 artikulua).
- Prozesuaren largespena jakinarazi beharko zaio.

4.8. Genero indarkeriarekin lotutako jardunbideen esparruan biktimaren duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea

Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 63. artikulua
 Botere Judizialaren Lege Organikoaren 232.2 artikulua
 Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 19. artikulua eta hurrengoak
 Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimei Laguntzeko eta Laguntzeko 35/1995 Legearen 15.5 artikulua
 Lekuko Babesa eta Kausa Kriminalen Perituen 19/1994 lege Organikoaren 2.a) eta 3.1 artikulua

1/2004 Lege Organikoa biktimaren duintasuna eta intimitatea babesteko neurri zehatzak aurreikusten ditu.

Batetik, isilpean gordetzen dira biktimaren, bere ondorengoan eta bere zaintzapean edo babespean dauden pertsonen datu pertsonalak.

Bizileku berriaren, lantegi berriaren edota seme-alaben ikastetxe berriei buruzko datuak isilpean gordetzeak ez du soilik biktimaren intimitatea babesten; horretaz gain, bere segurtasuna bermatzeko tresna garrantzitsua da, inputatuak datu horiek ezagutu ditzan saihesten baitu.

Helburu horrexekin, biktimak hirugarren pertsona baten helbidea eta telefonoa eman ditzakeela xedatzen du babes aginduaren eskaera- ereduak; horrela, Segurtasun Indar eta Kidegoak edota organo judizialak pertsona horri helarazi ahal izango dizkio jakinarazpenak.

Bestalde, Delitu biktimaren estatutuko legeak biktimek zigor prozesuan intimitatea babesteko duten eskubidea aitortzen du, eta zentzu horretan, epaileak, fiskalak, ikerketaz arduratzen diren funtzionarioak eta prozesuan esku hartzen edo parte hartzen duen beste edozein pertsonak biktimen intimitatea babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzera behartzen ditu, Legean xedatzen denari jarraikiz. Bereziki, babes berezi behar duten adingabeko biktimen edo desgaitasunen bat duten biktimen kasuan, biktimak identifikatzea erraz dezakeen edozein informazio mota zabaltzea saiheesteko neurriak hartu beharko dituzte.

Xede horretarako, Auzi Kriminalen Legearen arabera, Epaileak erabaki ahal izango du, ofizioz edo Ministerio Fiskalak edo biktimak eskatuta, neurri hauetako edozein hartzea biktimaren intimitatea babesteko edo hura edo bere familia errespetatzeko beharrezko denean:

- Biktimaren nortasunari buruzko informazioa, zuzenean edo zeharka identifikatzea ahalbide dezaketen datuak edo babesteko beharra ote duen ebazteko baloratzeko erabili diren egoera pertsonalak zabaltzea edo argitaratzea.
- Biktimaren edo haren familiako kideen irudiak lortzea, zabaltzea edo argitaratzea.

Era berean, Epaitegiak erabaki dezake, ofizioz edo biktimaren beraren nahiz Ministerio Fiskalaren eskariz, jarduera judizialak ez daitezela publikoak izan eta bistak ateak itxita egin daitezela.

4.9. Genero indarkeriatzat jotako delituen biktimentzat laguntzak

35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimei Laguntza eta Asistentzia ematekoa
Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimentzako laguntzen arautegia, maiatzak 23ko 738/1997 Errege Dekretuak onartua

Espanian gertatu diren indarkeriazko edo dolozko delituen zuzeneko edo zeharkako biktimen onerako laguntza publikoak dira, baldin eta hauen ondorioak heriotza, gorputz lesio larriak edo buru edo gorputz osasuneko kalte larriak diren; sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako ere badira laguntza hauek, nahiz eta hauek indarkeria gabe eginak izan.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntza hauen onuradunak izan daitezke delitu baten biktima izan direlako, berezitasun hauekin:

- Oro har, laguntza hauek jaso ditzakete, delitua gertatu den unean, espainiarrak diren edo Europar Batasuneko beste estatu kide batekoak direnek edo, hangoak ez izan arren, normalean Espainian bizi diren edo Espainiako laguntzen parekideak diren laguntzak aitortzen dituen beste estatu batekoak badira. Delituaren biktima genero indarkeriaren biktimatzat jotzen denean, emakumearen aurkako indarkeria ekintza baten ondoriozko delituak direnean, Espainian dauden beste edozein estatutako emakumek jaso ahal izango dituzte laguntzak, euren egoera administrazioa edozein izanik ere.
- Laguntza horiek eskatzeko epea hiru urtekoa izango da, delitu-egitatea gertatu zenetik zenbatzen hasiko delarik berau. Hala eta guztiz ere, epe hau gelditu egingo da prozesu penala hasten denean eta berriro ere irekiko da ebazpen judizial irmoa ematen denean.
- Laguntzen zenbatekoa ez da inolaz ere epaian ezarritako kalte-ordaina baino handiagoa izango eta laguntza motaren araberako irizpide batzuk ezarriz kalkulatu da. Genero indarkeriaren biktimen kasuan, horrela kalkulatu delako laguntzen zenbatekoa ehuneko hogeita bost areagotuko da. Heriotza kasuetan, laguntza ehuneko hogeita bost areagotuko da seme alaba adingabeentzat edo heldu desgaituentzat.
- Prozesu penalaren amaiera dakarren ebazpen judizial irmo bat izan arte beharrezkoak diren behin-behineko laguntzak

ere eman daitezke, baldin eta biktima edo bere onuradunak egoera ekonomiko prekario batean gelditu direla egjztatu daiteken. Delituaren biktima genero indarkeriaren biktima jotzen denean, behin-behineko laguntzak eman ahal izango zaizkio biktimaren edo haren onuradunen egoera ekonomikoa aintzat hartu gabe.

INFORMAZIO TELEFONOAK

Estatu-mailan	016 Entzuteko urritasuna duten pertsonak: 900 116 016
Andaluzia	900 200 999
Aragoi	900 504 405
Kanariak	112
Kantabria	942 214 141
Gaztela-Mantxa	900 100 114
Gaztela eta Leon	012
Katalunia	900 900 120
Extremadura	
Galizia	900 400 273
Balear Uharteak	971 178 989
Errioxa	900 711 010
Madril	012
Nafarroa	
Euskal Autonomia Erkidegoa	900 840 111
Asturiasko Printzerria	985 962 010
Murtziako Eskualdea	112
Valentziako Erkidegoa	900 580 888
Ceuta	900 700 099
Melilla	

Informazio gehiago: Autonomia Erkidegoen Berdintasun Erakundeetan, Emakumeen Arretarako Zentro autonomiko eta tokikoetan, Biktimen Arretarako Bulegoetan, Abokatuen Elkargoen Orientazio Juridikoko Zerbitzuetan eta emakumeen eta atzerritarren erakunde desberdinetan.

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren web orria: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/instituciones/home.htm>